

# EUSKARAREN ERABILERAN JAUZIA: ETORKIZUNERAKO BIDE-ORRI PROPOSAMENA

**JASONE MENDIZABAL**  
EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO  
ZUZENDARIA

**IRATI ICIAR MADINABEITIA**  
EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO  
LEHENDAKARIA

**A**zken urteotako euskararen biziberritzeari buruzko testuak antzera hasten dira: XXI. mende likidoaren mehatxuak, mugimendu sozialen desaktibazioa, globalizazioa, digitalizazioa... laburtuz, gizartea aldatu egin da. Eta horren guztiaren eraginez euskararen biziberritze mugimenduak bere burua bidegurutzean ikusi du, horregatik molde berrietara egokitu beharraren diagnostikoa konpartitua da, baina zein bide hartu aurrera egiteko?

Bidegurutzearen diskurtsoak baditu dagoeneko hainbat urte eta euskalgintzak eman ditu pausuak bidegurutze horretatik irten eta bide berriak urratzeko. Topagunean, nolabait, euskararen biziberritzearen aurrera egiteko bidea aukeratu dugula esan dezakegu: erabilera, erabilera da gakoa, erabileran jauzi bat behar dugu euskarak aurrera egingo badu.

Erabilera kokatu dugu euskararen biziberritze prozesuaren erdigunean, hurrengo urteotan erabileraren aroa biziko dugula irudikatu dugu. Erabilera hazi dadin, euskarak testuinguru aproposa eta propioa behar du, hizkuntzaren ikasketa eta ezagutzaz gain, euskara eroso erabili ahal izateko testuinguru sozial eta komunitario egokituak.

Are gehiago, erabileran jauzia gertatzea nahi dugu. Jauzia kontzeptuarekin erabileran goranzko joera esanguratsu eta neurgarri bat irudikatzen dugu eta hori lortzeko beharrezko izango diren baldintzak zehazten hasi gara Euskaltzaleen Topagunean. Esan beharrik ez, oinarrian, gizarte eraldaketa bat probokatu nahi dugula, egoera bat iraultzea, eta hori gizarte osoaren erronka izango da, guztion indarrak beharko ditugu lan horretan, askotariko eragileen konpromiso eta elkarlana.

## EGOERAREN LARRITASUNAZ KONTZIENTE OTE GARA?

Euskal Konfederazioak urrian egingadako agerraldian egoera argi eta garbi adierazi zuen: euskararen aldeko politika publiko ausartak behar dira, orain arteko erritmo eta politikekin jarraituz gero, euskara hiltzera kondenatua baitago. Bilakaera demografikoak aurreikusten du Ipar Euskal Herrian 2050erako euskaldun kopurua % 16tik behera izango dela, biziraupenerako UNESCOk % 30 markatzen duen bitartean.

Orain arte bezala segitzea, diskurtso baikorregien babesean, ez da benetako hizkuntza-politika bat, "zainketa aringarriak dira: sufrimendu handiegirik gabe, [euskara] goxo hil dadin."<sup>1</sup>

Ipar Euskal Herriko euskaltzaleen diskurtso hau dramatikoegia begitandu ahal zaigu, baina ez dezagun geure burua engainatu, jakin badakigu ezer egin ezean edo, hobe esanda, berdina egiten jarraituz gero, Hego Euskal Herrian ere laster geundekela antzerako egoeran.

Nafarroan berriz, inkestek erakutsi dute herritarren % 40 euskararen aldeko neurriak hartzearen kontra daudela, kontraktasunaren diskurtsoa hedatu eta indartu egin da, gizarte zatiketa sortzeraino. Euskarak biziberritzerako ezinbesteko dituen adostasun sozialik ezin da sortu halako giroan.

Aldi berean, EAEn bizi den oldaraldi judizialak begien aurrean jarri digu,

euskarak biziberritzeko beharrezko dituen lege berme eta tresna nahikorik ez duela, hizkuntza politika propioa egiteko oztopo eta debekuak tarteko. Urte askoren ondoren eta adostasun demokratikoan oinarritutako neurriak desaktibatzen hasi dira, diskurtso atzerakoi eta antidemokratiko baten barne, eta hau hasiera bakarrik dela sumatu dezakegu.

Kontsentsu sozio-politiko ausart eta anbiziotsuak ezinbestekoak ditugu egoerari buelta emateko, hizkuntza politika propioak garatzeko eta hizkuntza gatazkak modu egokian kudeatzeko.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar, eraso horiek ez dutela eskumen zuzenik euskaltzaleengan, inork ezin digula kendu euskaraz bizitzeko nahia eta inork ez digula baimenik eman behar euskaltzale izan eta euskararen alde lan egiteko.

Ondokoaz konturatu gara, zer inportantea den eta zer indarra duen euskaltzale mugimendua aktibatua, ahaldundua eta sendoa izateak.

## NONDIK HASI ERABILERAREN AROA IRUDIKATZEN?

Aipatu dugu, euskararen biziberritzearen dinamikak hurrengo hamarkadetarako erronka erabilera izango duela. Aro hori nola izatea nahiko genukeen, nola irudikatzen dugun, hasi gara diseinatzen eta, eraldaketa gertatu dadin, euskararen ekosistemari erreparatu diogu, baldintza egokiak aurreikusteko.

1. Ekhi Erremundegi: "Hil ala bizi" Berria (2023-10-20) <https://www.berria.eus/paperekoa/1935/003/002/2023-10-20/hil-ala-bizi.htm>

Euskararen biziberritzean erabilera jauzia gertatzea, giza-eskubideen errespetuan oinarrituko da, komunitatearen garapena eta gizarte hobeto bat helburu.

Erabilera aktibatu eta euskarak zentralitatea izan dezan, adostasun sozio-politiko eta instituzional berriak behar dira, eremu administratibo ezberdinetan banatuta egoterakoan, euskararen tokian tokiko irakurketa eta egokitzapenak egitea ezinbestekoa izango da.

Euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliko bada, hiztunak behar dira eta horregatik, hiztun berriak sortzeko prozesua modu integral batean irudikatzea komeni da, ekosistema baten gisan: hezkuntza sistema arautua, helduen eskalduntze-alfabetatzea eta sozializazio komunitarioa (harrera programak, aisialdi eta kirolean euskararen erabilera, euskaraz eroso bizitzeko guneak...) euskararen erabilera giltzarri.

Euskal gizarte askotarikoa da, euskaldun izateko modu ezberdinak izateaz gain, kultura eta hizkuntza aniztasuna kudeatu behar dugu, euskara bizikidetzarako erreminta izango bada.

Euskararen aldeko jarrera indartu eta atxikimenduak sendotzeko, gatazka politikoaren ondorioz sortutako gizarte-hausturen kontziente izango gara, zauriak identifikatu eta osatzeko, hizkuntzaren inguruan indarrean dauden jarrera ezkor eta estereotipoak desaktibatuz.

Gizartearen digitalizazioa errealitate bat da, adimen artifizialaren garapenarekin aro berri baten hasieran gaudela diote adituek, ondorioz euskarak eremu digital

horretan behar duen lekua izateko adi egon eta ausart jardun behar dugu.

Hizkuntzen arteko ukipen egoeraren eta botere harremanen ondorioz, hiztunen arteko hainbat zauri sortzen joan dira, zauri pertsonal eta kolektiboak dira, gainera. Bizikidetzaren osasuntsu eta aldekatasun baikorra lantzeko, min horiei kasu egin behar zaie, gatazka kudeatzeko erreminten bidez.

Era berean, afektibitatearen eremuarekin jarraituz, gazteek euskararekiko bizipen positiboak garatu ditzaten, beraiei egokitutako, beraien testuinguru eta beharretara egokitutako diskurtso eta eskaintzak lantzea komeni da, aisialdia, kirola eta kultur arloetan bereziki. Ez baitugu ahaztu behar, gazteak direla euskara gehien jakiteaz gain, gehien erabiltzen dutenak.

Herri mugimenduen bitartez gauzatu diren eraldaketa sozialak, euskararen arloan jauzia bera eraldaketa gisa begitatu badugu, ezinbestean bestelako gizarte mugimenduekin zubiak eta elkarguneak sortu eta harremanak areagotu behar dira.

## ERABILERA JAUZIA EMATEKO MAPA: TOPAGUNEAREN III. KONGRESUA

Euskaltzaleen Topagunea 100 elkartetan osatzen duten mugimendu zabala da: 70 euskara elkartetan eta toki komunikabideak, kulturguneak edota aisialdi proiektuak jorratzen dituzten beste 30 elkartetan osatzen dute mugimendua. 15.000 bazkide, 400 langile, 3.000 boluntario biltzen ditu. Herriz herri antolatuta, euskaltzaleen aktibazioa ardatz hartuta, euskararen

erabilera sustatzeko askotariko egitasmoak bideratzen ditu. Aldi berean, maila nazionalan, elkarte sarean ahots eta interloku-tore bada, euskalgintzan erreferente bihurtu dena, ezagutza eta diskurtso propioa sortzeko eta zabaltzeko duen gaitasunari esker.

Euskaltzale aktiboak eta antolatuak dira bere oinarri soziala, euskalduna izateko bizinahia motor eta euskal komunitatea eta euskaldunon eskubideak xede. Euskaltzaleak sortu, elikatu, ahaldundu, aktibatu, antolatu eta saretu egingo ditu, tokiko errealitatei kasu eginez eta begirada nazionala galdu gabe.

Betidanik izan du euskararen erabilera erdigunean, tokian toki lanean baina irakurketa globalak eginez, jarrera zubigilea eta proiektu berritzaileekin aitzindaria (Tokikom, Kukulaisi, Euskaraldia...).

Erabileraren aroari ekiteko, mugimenduari lan-ildo berriak emateko, oinarriak berrikusi eta estrategia egokiak planteatzeko, III. Kongresua egin berri du Topaguneak. Ikuspegi irekiago batetik planteatu du kongresua, barrura begira Topaguneko kideen parte hartzea, inplikazioa eta kohesioa bilatzeaz gain, euskal gizarte osoa interpelatu du, euskararen erabileraren aroa gauzatzeko Topaguneak bakarrik ezin duelako, gizarte eraldaketa bat bilatzen den unetik, gizarte osoaren parte hartzea ezinbesteko delako.

Eraldaketa sozial hori irudikatzeko, Aldaketa Teoriaren metodologia aplikatu dugu eta ikuspegi sistemikoz lan egitea izan da lanerako premisa nagusia. Horrela, "Batera Jauzi" jendarte laborategia abiatu zuen 2022ko abenduan.

14 pertsonako talde egonkorra, 200 pertsona ingururekin kontraste-taldeak eta ia urtebeteko lanaren ostean, laborategiak euskararen erabileran jauzia emateko bide-orri bat irudikatu du, markatutako eraldaketa emateko gizartean gertatu beharreko aldaketa nagusien mapa-proposamen bat.

Mapa sistemikoa da, beraz, gizarte osoari zuzendua, eta Topaguneak bere ekarpena zein izan daitekeen aztertzeko ariketa egin du, bide-orri horretan bere tokia eta egitekoak zedarrizteko. Hain zuzen, III. Kongresuan eztabaidatu eta onartutako lan-ildoak bide-orri horren arabera diseinatu ziren.

## **EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAREN HURRENGO HAMARKADARAKO BOST LAN-ARDATZECO BIDE-ORRI PROPOSAMENA**

### **1. MUGIMENDU EUSKALTZALE ERALDATZAILE, ANITZ ETA SENDOA IZATEA ETA HERRITARRAK AHALDUNTZEA, NAZIO MAILAN ZEIN TOKIAN TOKI**

Euskaltzaleen Topaguneak ez du bere baitan mugimendu euskaltzale osoa barnebiltzen, bistan denez. Zorionez, mugimendu euskaltzalea zabala, bizia eta askotarikoa da, eta beste eragile askok ere osatzen dute. Aniztasun hori funtsezkoa, aberasgarria eta onuragarria da mugimendu osoarentzat. Gure ipar nagusietako bat da eta izango da Euskaltzaleen Topaguneko elkarte sarea eta tokiko elkarte bizitza indartzeko eta hedatzeko lan egiten jarraitzea. Horrekin

batera, antolatuta ez dauden norbanako euskaltzaleak ahaldundu, aktibatu eta sartzeko lan ildo indartzea proposatzen dugu. Horretarako mugimendua egitura-tzeko eta sartzeko eredu malguagoak eta zeharkakoagoak indartzea izango dugu erronka nagusia.

## **2. HARREMAN SARE SENDOAK IZATEA, ASKOTARIKO ERAGILE ETA MUGIMENDUEKIN**

Erabilera jauzi bat emateko, funtsezkoa izango da euskararen aldekotasuna gizartean indartzea, bai jarreretan, bai eta jokaeratan ere, urrats berriak emateari begira. Euskararekiko jarrera baikorrak, euskaraz bizi nahia eta euskaltzaleatasuna indartu eta zabaltzeko premia azpimarratu nahi dugu, baita euskaratik urrunago dauden herritar eta kolektiboen aldekotasuna indartzekoa ere. Horretarako harremanak sendotzea komeni da, lehenik eta behin mugimendu euskaltzalean ari garenon artean eta baita komunitateko askotariko herritar eta eragileekin ere. Euskaraz biziberritzeko prozesua berdintasun- eta bizikidetzako osasuntsu batean gauzatuko bada, ezinbestekoak izango zaizkigu gizartearen gehiengo handi eta zabal baten konplizitatea eta babesa, erdaldunena barne.

Horrez gain, jatorri ezberdinetako etorri berriei egin beharreko hizkuntza harreran, beraien hizkuntzak eta kulturak aintzat hartzea garrantzitsua izango da. Mugimendu euskaltzalearen irekidura handi baten beharra ikusten dugu eta, aldi berean, hiztun komunitatea trinkotzeko lanetan sakontzeko premia.

## **3. EUSKAL IDENTITATE ASKOTARIKO, IREKI ETA INKLUSIBOA SENDOTZEKO, IMAJINARIOA, DISKURTSOA ETA JOKAERAK BERRIKUSI ETA GIZARTERATU**

Zer da euskalduna izatea? Eta zer da euskaltzale izatea? Nola hautematen gaituzte jendartean? Azken hamarkadatan euskal hiztun komunitatearen ezaugarriak sakonki aldatu dira baina indarrean daude oraindik euskaldunen inguruko antzinako estereotipoak eta aurreiritziak.

Ezin dugu euskaldun, euskaltzale bakarra gogoan eduki, ezin diogu identitate bakar eta bakarzaleari mintzatu. Identitate konplexuak, estetika anitzak, begirada periferikoak, estrategia inklusiboak... behar ditugu. Finean, komunitate aberatsak nahi ditugu zentzu guztietan, askotariko identitateak dauzkaten herritarrek biziberritze prozesura gehituko badira. Imajinario zabal hori elikatzen eta hedatzen lagunduko duen diskurtso eta jarrera eguneratuak eta ekosistema kultural eta komunikatibo egokiak garatzea beharrezkotzat jotzen dugu etapa berrian.

## **4. EUSKAL HIZTUNAK SORTZEKO ETA SOZIALIZATZEKO EKIMENAK PLAZARATU ETA ERAGIN**

Euskararen erabilera jauzia emateko, ezinbestekoa izango dugu hiztunak sortzea. Horretarako euskalduntze sistema unibertsala beharrezkotzat jotzen dugu, hezkuntza arautuko zein euskaltegi-tako sistemen bidez euskaraz ikasteko kalitatezko pedagogia egokituak, malguak eta doakoak eskaini daitezken. Horren alde

eragingo dugu eta lan horren osagarri ezinbestekoa hiztunei euskara erabiltzeko aukerak eskaintzea izango da. Ikasgeletako lana ez da nahikoa hiztunak sortzeko. Euskaltzaleen Topagunearen funtzio nagusia hiztunak sozializatzeko erabilera esparruak bermatu eta sustatuko dituen ikuspegi komunitarioa indartzen eta zabaltzen ikusten dugu. Era berean, euskal kulturgingintzaren eta ezagutza soziolinguistikoaren transmisioa eta zabalkundea bermatzea beharrezkotzat jotzen dugu. Euskara ikasteko eta erabiltzeko motiboak gizarteratzea, hizkuntza aniztasuna lantzeko egitasmo eta hizkuntza-harrera egokiak eskaintzea eta eremu ez formalean -kirolean, aisialdian eta auzo bizitzan- jarduteko euskararen erabilerarako espazioak eta sareak eskaintzea izango dira Euskaltzaleen Topaguneak bereziki sakontzeko lan eremu nagusiak.

## **5. ERABILERAN JAUZIA EMATEKO AKORDIO SOZIO-POLITIKO-INSTITUZIONAL BERRIAK BULTZATU**

Erabileraren aroari bultzada emateko itun sozial eta politiko berriak behar ditugu eta horretara iristeko egin beharreko bidea eragile guztion erantzukizuna da. Euskal Herria hiru eremu administratibotan banaturik dago eta horietako bakoitzean eta bakoitzaren barruan, oso errealitate soziolinguistiko eta sozio-politiko ezberdinak daude, bai eta euskararekiko hurbiltasun fisiko eta ideologiko zeharo ezberdinak dituzten pertsona, talde eta kultura politikoak ere. Tesuinguru horretan akordio bakarra baino akordioak beharko ditugula ulertzen dugu eta horiek hizkuntza-politikan isla izatea.

Horrekin batera prozesu berrirako erakundeen babesa eta finantzaketa ezinbestekoa izango dira, gobernantza eta lidergo partekatu zintzoan oinarrituta. Euskaltzaleen Topagunetik euskararen biziberritze-bidean eta, batez ere, erabileran jauzia emateko helburuarekin eraikitako planteamenduak sustatuko ditugu akordio hauei begira.

## **AURRERA BATERA...**

Azaroak hitzordu gogoangarriak utzi dizkigu eta guztiok ere geure buruan hurrengo eguna irudikatzen egon gara, azaroak 5, azaroak 19... zer egingo dugu?

Euskaltzaleon mugimendua egunero aktibatuta eta lanean egotearen indarra eta beharra nabaritu dugu. Komunitate gisa, euskaraz bizitzeko nahia erakutsi dugu.

Topagunetik, hurrengo urteetarako zereginak irudikatu ditugu: barrura begira, mugimendu euskaltzale sendo eta anitza elikatuko dugu, herriz herri antolatua, ikuspegi nazionalaren txapelpean. Baina, era berean, gizarte osoa interpelatu dugu, gizarte eraldaketa delako proposatu duguna, horretarako ez-ohiko harremanak sustatuko ditugu, lankidetzeta eta akordio berriak, komunitategintza landuko dugu...

Dena ezingo dugu aldi berean egin, urratsez urrats egingo dugu bidea. Aurretik egin dugulako eta egin dezakegulako, jauzia batera egingo dugu.



